

BIOGRAFIA

ÁNGEL OLARAN



Ángel Olaran 1938an Hernanin jaioa, Aita Zurién misiolaria da eta bere bizitzaren zatirik handiena Afrikan eman du, pobreei laguntzen.

20 urtez Tanzanian egon ondoren, Ipar Etiopiarra joan zen eta bertan bizi da Wukro izeneko herrian (37. 000 biztanle).

Misiolari honek hainbat proiektu jarri ditu martxan behar dituen laguntzeko; horietako bat da Wukroko umezurtzak bere kargu hartzea eta honen helburua izango litzateke beharrezko laguntza ematea, I.H.E.S.A.-ren prebentzioa eta gaixotasunak dutenei laguntzea.

Hango herritarrak oso pobreak dira. Lan egiten dutenek 20 euro, gutxi gorabehera, kobratzen dute hilero; baina, gehienek ez dute ezer.

Umeei eskolara joateagatik euro bat ordaintzen dute eta materiala ematen diete (4 koaderno, arkatx bat...); dirurik ez badute, misiolariak ordaintzen diete.

Aipatzekoa da janariarena. Egunerokoak 40 zentimo balio du, baina oso gutxi dute diru hori. Beraz, Olaranek ahalegin guztiak egiten ditu dirua lortzeko.

“Ikusten duzue, pobretasun gorrian bizi dira; dena den, ez daude bizitzarekin haserre. Pozik eta alai bizi dira” dio gure misiolariak.